

IRAKASKUNTZA-GIDA 2022/23

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztugabea

IRAKASGAIA

25084 - Bizikidetzarako Hezkuntza

ECTS kredituak: 4,5

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

"Bizikidetzarako Hezkuntza" psikologiako graduan eskaintzen den Hezkuntzaren Psikologia minorrean kokatzen den hautazko ikasgaia da. Izan ere, ikasleek 3. zein 4. mailan aukera dezakete. Kredituei dagokienez, 4'5 ECTSko ikasgaia da, hau da, 45 eskola-ordu. Bertan, Bakerako Hezkuntza eta gatazken ebazpenaren nondik norako nagusiak lantzen dira.

IKASGAIAREN HELBURU NAGUSIAK

Bakerako Hezkuntzaren eta Gatazken Ebazpenaren nondik norako teoriko zein praktikoak ezagutzea eta haiek aplikatzeko gaitasunak eskuratzea dira "Bizikidetzarako Hezkuntza" ikasgaiaren helburu nagusiak.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

GAITASUNAK:

Genero-ikuspegia landuko da ikasgaiaren zehar-lerro gisa.

Hona hemen irakasgaiaren landuko diren gaitasunak:

Bizikidetzarako Hezkuntzaren (BH) oinarri teorikoak ezagutzea.

Bakerako Hezkuntzak eta Gatazken Ebazpenak eskolan esku hartzeko esparru gisa duten garrantzia ezagutzea.

Bakerako Hezkuntzaren eta Gatazken Ebazpenaren helburu eta lerro orokorrak ezagutzea, bai eta horietan parte hartzen duten agenteak eta eskolako testuinguruan dituzten oinarri psikopedagogikoak ere.

Bizikidetzari buruzko esku hartzeen eskaerak identifikatzeko gai izatea, eskolako testuinguruan.

Bizikidetzaren ebaluatzeko tresnak erabiltzeko gai izatea, eskolako testuinguruan.

Esku hartzeko estrategiak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko gaitasuna eskuratzea, eskolako bizikidetzarako gaitasunak eskuratzeko aldera.

Lanbide anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea.

Idatzizko nahiz ahozko txosten teknikoak egiteko gai izatea.

Psikologoak eskolaren arloan dituen funtzioak eta ardura etikoak ezagutzea.

Bizikidetzarako Hezkuntzari buruzko dokumentazio-iturriak erabiltzeko gai izatea, eta informazioa eskuratzeko behar diren estrategiak menderatzen direla erakustea.

IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Bizikidetzaren zer den azaltzea.
2. Bizikidetzarako hezkuntzaren balio eta eduki pedagogikoak eta hura oztopatzen duten aldagai nagusiak deskribatzea.
3. Bizikidetzaren oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiak deskribatzea.
4. Bakerako Hezkuntza eskolaren eremuan bizikidetzaren esku-hartzeko esparru gisa ulertzea.
5. Bake positiboa eta gatazken ikusmolde positiboa deskribatzea.
6. BHren helburuak eta horiek lortzeko hezkuntza-lerroak azaltzea.
7. BH prozesuan parte har dezaketen eragileak zein izan daitezkeen azaltzea.
8. BHn eskola-egiturak izan behar dituen ezaugarriak deskribatzea.
9. BH prozesua aplikatzeko modua azaltzea.
10. BHrekin zerikusia duen dokumentazio-iturriak erabiltzea.
11. BHrekin zerikusia duen informazioa ulertu eta maneiatzea.
12. BHri buruzko txosten teknikoak lantzea eta ahoz zein idatziz aurkeztea.
13. Ahoz zein idatziz komunikatzea.
14. Taldean lan egitea.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

I ATALA: BIZIKIDETZA

1. Sarrera: bizikidetzarako hezkuntza.
 - 1.1. Bizikidetzeta eta haren pedagogiaren eduki edo/eta balioak.
 - 1.2. Bizikidetzeta oztopatzen duten aldagaiak.
2. Bizikidetzeta oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiak.
 - 2.1. Balioak.
 - 2.2. Edukiak.
 - 2.3. Irakaskuntza-metodologia.
 - 2.4. Ebaluazio-sistema.
 - 2.5. Diziplina.
 - 2.6. Hezteko modua.
 - 2.7. Ikaslearen inguruko ikusmoldea.
 - 2.8. Eskola-egitura.

II ATALA: BAKERAKO HEZKUNTZA (BH) BIZIKIDETZAN ESKU HARTZEKO TRESNA GISA

3. Bakerako Hezkuntzaren oinarri teorikoak.
 - 3.1. Kontzeptuzko oinarriak: bake positiboa eta gatazkaren ikusmolde positiboa.
 - 3.2. BHren helburuak, hezkuntza-lerroak eta BH prozesuan parte har dezaketen eragileak.
4. Bakerako hezkuntza praktikan.
 - 4.1. Eskola-egitura BHn.
 - 4.2. Bakerako Hezkuntza prozesua gauzatzeko modua.

III ATALA: GATAZKEN EBAZPENERAKO HEZKUNTZARI BURUZKO ESKU-HARTZE PROGRAMAK

5. Bitartekaritza programak.
 - 5.1.1. Nola gauzatu ikaskideen arteko eskola-bitartekaritza programa.
 - 5.1.2. Ikaskideen arteko eskola-bitartekaritza programaren funtzionamendua.
 - 5.1.3. Ikaskideen arteko eskola-bitartekaritza programa baten diseinua.
6. Gatazken ebazpenerako gaitasunak irakasteko esku-hartze programak
 - 6.3.1. Gatazken Ebazpena lantzeko, HHn, LHn, DBHn eta Batxilergoan lagungarri izan daitezkeen esku-hartze programak.

METODOLOGIA

Ikasgaia Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza eta antzeko metodologia aktiboen bitartez lantzen da. Eskolen %80etara etortzen diren ikasleak eskola teoriko zein praktikoetan egindako jardueren bitartez ebaluatuko dira eta ez dute azterketarik egin behar izango.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	24	2	5		5		9		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	36	3	7,5		7,5		13,5		

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNekoAK

- Ahozko defentsa % 20
- Portfolioa % 80

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIOA EGOERA ARRUNTAN:

Eskolen %80etara etortzen diren ikasleak eskola teoriko zein praktikoetan egindako jardueren bitartez ebaluatuko dira eta ez dute azterketarik egin behar izango. Hala, eskoletara joan eta bertan garatuko diren jardueretan parte hartzen duten

ikasleen kalifikazioa hiru ebaluazio-motaren arabera izango da. Batetik, ikasle-taldeek egindako lanak bilduko dituen Paper-zorroa erabiliko da eta, bestetik, behaketa. Azkenik, norbere-ebaluazioa. Ebaluazio-mota horiek aukeratu dira bat datozelako Bakerako Hezkuntzaren printzipioekin.

Ikasle ez presentzialen ezagutzak eta gaitasunak, berriz, azterketaren bitartez ebaluatuko dira. Ebaluazio-mota hau aukeratuz gero, JARRI HARREMANETAN IRAKASLEAREKIN, hark esateko zer material ikasi behar den.

EBALUAZIOA KONFINAMENDU EGOERAN IKASLE EZ-PRESENTZIALENTZAKO:

Test moduko azterketa egingo da, ordutegi ofizialean agertzen den egun eta orduan. Online egingo da azterketa gela birtualaren bitartez (Egela).

OHIKO DEIALDIA

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatutako izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasleari eta, horretarako, lau asteko epea izango du lauhilekoa hasten denetik kontaktzen hasita.

DEIALDIARI UKO EGITEA

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren zati honen irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasleari.

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EZ OHIKO DEIALDIA

Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko azterketara aurkezteko.

Ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da.

Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba azterketa izango da. Ikasleek ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gorde ahal izango dira. Aldiz, ikasturtean zehar egindako etengabeko ebaluazioaren emaitzak negatiboak badira, emaitzak ezin izango dira ezohiko deialdirako mantendu eta deialdi horretan ikasleek zati honen kalifikazioaren % 100 eskuratu ahal izango dute.

EZOHIKO EBALUAZIOA KONFINAMENDU EGOERAN:

Test moduko azterketa egingo da, ordutegi ofizialean agertzen den egun eta orduan. Online egingo da azterketa gela birtualaren bitartez (Egela).

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

I ATALA

1. GAIA: sarrera

Jares, Xesús R. (2006): Pedagogía de la convivencia, Bartzelona: Grao. 20-40 orrialdeak. Liburutegian eskuragarri.

2 GAIA: bizikidetzaren oinarriak egungo hezkuntza-sistemaren alderdiak
Materiala eskuragarri ikasgela birtualean (Egela), 3. Jarduerari dagokion atalean.

II ATALA

3 GAIA: Bakerako Hezkuntzaren (BH) oinarri teorikoak

Jares, Xesús R. (2005): Educación para la paz. Su teoría y su práctica, Madril: Popular. Hain zuzen ere, honako kapitulu hauek: VII, VIII, IX eta XII. Liburutegian eskuragarri.

Reizabal, Luixa (2015): Hezkidetzaren bakea lortzeko ezinbesteko tresna. In L. Reizabal, Genero-berdintasunean hezteko gida, 37-51, Bilbo: UEU. Esteka honetan, gida dohainik:
http://www.ueu.eus/denda/ikusi/genero_berdintasunean_hezteko_gida

4. GAIA: BH praktikan

Jares, Xesús R. (2005): Educación para la paz. Su teoría y su práctica, Madril: Popular. Hain zuzen ere, honako kapitulu hauek: X eta XI. Liburutegian eskuragarri.

Gela birtualean, 0 jarduerari -ikasgaiaren aurkezpenari- dagokion atalean, irakaskuntza-metodologia aktiboen inguruan dauden materialak.

III ATALA

5. GAIA: bitartekaritza programak

Boqué Torremorel, M^a Carme (2007). Tiempo de mediación, Bartzelona: CEAC. Liburutegian eskuragarri. Materialaren txantiloia ikasgela birtualean eskuragarri 10. jarduerari dagokion atalean.

GEUZ (2013). Nola jarri abian, pausoz pauso, ikaskideen arteko eskola-bitartekaritzako programa bat. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Ikasgela birtualean eskuragarri 10. jarduerari dagokion atalean.

 

6. GAIA: Gatazken ebazpenerako gaitasunak irakasteko esku-hartze programak HH, LH, LBH, DBH eta Batxilergorako Ikasle-taldeek bilatuko dituzte Interneten.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

I ATALA

1. GAIA: sarrera

Jares, Xesús R. (2006): Pedagogía de la convivencia, Bartzelona: Grao. 20-40 orrialdeak.

2 GAIA: bizikidetza oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiak
Materiala eskuragarri egelan 3. jarduerari dagokion atalean.

II ATALA

3 GAIA: Bakerako Hezkuntzaren (BH) oinarri teorikoak

Jares, Xesús R. (2005): Educación para la paz. Su teoría y su práctica, Madril: Popular. Hain zuzen ere, honako kapitulu hauek: VII, VIII, IX eta XII.

Reizabal, Luixa (2015): Hezkidetza bakea lortzeko ezinbesteko tresna. In L. Reizabal, Genero-berdintasunean hezteko gida, 37-51, Bilbo: UEU. Esteka honetan, gida dohainik:
http://www.ueu.eus/denda/ikusi/genero_berdintasunean_hezteko_gida

4. GAIA: BH praktikan

Jares, Xesús R. (2005): Educación para la paz. Su teoría y su práctica, Madril: Popular. Hain zuzen ere, honako kapitulu hauek: X eta XI.

Gela birtualean, ikasgaiaren aurkezpenari dagokion atalean, irakaskuntza-metodologia aktiboen inguruan dagoen materiala.

III ATALA

5. GAIA: bitartekaritza programak

Boqué Torremorel, M^a Carme (2007). Tiempo de mediación, Bartzelona: CEAC. Zati bat gela birtualean eskuragarri 10Jri dagokion atalean.

GEUZ (2013). Nola jarri abian, pausoz pauso, ikaskideen arteko eskola-bitartekaritzako programa bat. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza. Gela birtualean eskuragarri 10Jri dagokion atalean

 

6. GAIA: Gatazken ebazpenerako gaitasunak irakasteko esku-hartze programak HH, LH, LBH, DBH eta Batxilergorako Ikasle-taldeek bilatuko dituzte Interneten.

Sakontzeko bibliografia ikasgela birtualean dago eskuragarri.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Sakontzeko bibliografia ikasgela birtualean dago eskuragarri.

CEIP Los Pinos de Bicorp (Valencia) (2009), "El respeto es la base de la convivencia". Bideoa. Iturria:

<http://www.youtube.com/watch?v=0VJFvQHvyfQ>. Premio 2009 de la Comunitat Valenciana.

Lederach, Jean Paul (1984): Educación para la paz. Bartzelona: Fontamara.

Reizabal, Luixa (1995): Bakearen Dimentsio Kulturala Euskal Herriko Uste Sistema eta Pertzepzioetan. Bilbo: EHU.

Reizabal Luixa (2007): Esku-hartzea gizarte-ezagutzaren garapenean. In L. Reizabal (arg.), "Gizarte-ezagutzaren garapena nerabegarora arte", 459-464, Bilbo: UEU.

Reizabal, Luixa eta Acha, Joana (2012): Hezkuntza sozioemozionala eta ikaskuntza zailtasunak: hezkuntza-testuinguruetan aplikatzeko esku-hartzea, Bilbo: UEU.

Aldizkariak

Journal of Peace Research

Journal of conflict resolution

Interneteko helbide interesgarriak

Egelan ikusgai

OHARRAK